

# 40.

# Euskal Zine Bilera Lekeitio 2017

PARTE HARTZEKO OINARRIAK



### Aurkezpena

Euskal Zine Bilerak 2017an 40 urte betetzen ditu eta ospakizun honen bitartez jaialdiaren bilakaerari begiratu nahi izan diogu. Bide batez, aurrera pausuak emateko bideak jorratzen hasiak gara jaialdiaren mesedetan datozen edizioetarako lan lerro berriekin hasteko.

Beti bezala, ikus entzunezko produktoreoi jaialdian parte hartzeko animatzen zaituztegu. Hona hemen, 2017ko Zine Bileran parte hartzeko oinarriak:

---

### PARTE HARTZEA

- 1 Edozein film egilek har lezake parte Euskal Zine Bileran (EZB).

---

### LANAK

- 2 EZB denez gero, euskara izango da bilerara aurkezten diren lanetan erabiliko den hizkuntza. Pelikularen zatiren batean beste hizkuntzaren bat erabiltzen bada, azpigituluak jarriko dira euskaraz. Ez da onartuko euskarazko azpigituluak ez dituen filmik, beste hizkuntzaren bat erabiltzen denean. Azpigituluak irudira txertatuta joango dira. Edozelan ere, eta erabilitako hizkuntzari dagokion aldetik, antolatzaile-taldeak erabakiko du lana onartzen den edo ez.
- 3 Filmak elaboratuta aurkeztuko dira. Hau da, muntaia-lana egindako filmak bakarrik onartuko dira.
- 4 Lanek ezingo dute 30 minutu baino gehiago iraun.
- 5 Pelikularen hasiera eta amaiera ondo adierazten duten lanak izango dira. Lanen kalitatea, bai irudiari zein audioari dagokionez, aldez aurretik kontrastatuko da. Antolatzaileek ez dute onartuko erreprodukzio-sistema lagungarrik eskatzen duen lanik. Ez dira onartuko baldintza horiek betetzen ez dituzten lanak.

---

### AURKEZTEA

- 6 Pelikulak online aurkeztuko dira.
  - 7 Euskal Zine Bilerara aurkezteko lehenengo [www.zinebilera.com](http://www.zinebilera.com) orrialdean bete behar duzu izen emate orria. Datu guztiak bete eta formularioa bidalitakoan lotura batek CLICK FOR FESTIVALS plataformara bideratuko zaitu ([www.clickforfestivals.com](http://www.clickforfestivals.com)). CLICK FOR FESTIVALS plataforman kontu bat sortu behar duzu, fitxa bete eta pelikula igo (kalitate onean). Gainera, ondoko dokumentu hauek erantsi behar dituzu:  
Bi fotograma JPG formatuan (300ppp), nahitaez.  
Zuzendariaren Nortasun Agiriaren kopia.  
Pelikularen kartela JPG formatuan, egongo balitz.  
Amaitzeko, zure lana Euskal Zine Bilerara aurkeztu beharko duzu, bertan plataforman.
  - 8 Lanak aurkezteko azken eguna 2017ko uztailearen 31 izango da.
  - 9 Antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik lanek izan ditzaketan kalteen gainean. Hala ere, antolatzaileek euren esku dauden neurri guztiak hartuko dituzte, lanek kalterik ez izateko.
  - 10 Antolatzaileek ez dituzte bere egiten film laburretan egiten diren adierazpenak, erabilitako irudiak edota isuritako iritziak. Beraz, ez dute horien gaineko inolako erantzukizunik.
- > INFORMAZIO GEHIAGO JASOTZEKO:  
Telefonoa: 94 624 34 82  
e-maila: [zinebilera@zinebilera.com](mailto:zinebilera@zinebilera.com)  
web orrialdea: [www.zinebilera.com](http://www.zinebilera.com)

### AUKERAKETA

- 11** Aurkeztutako lanak aurretiaz aztertu eta aukeratuko ditu Aukeraketa Batzordeak. Ez dira 50 film baino gehiago onartuko. Antolatzaileak, baina, profesional eta amateurren arteko oreka mantentzen saiatuko dira.
- 12** Ez dira onartuko aurreko urteetako edizioetara aurkezturiko lanak.
- 13** Euskal Zine Bileraren 40. ediziora aurkeztu eta onartutako filmak Lekeitioko Ikusgarri zine aretoan emango dira, 2017ko urriaren 14tik 21era.
- 14** Parte-hartzaileak dira aurkezturiko lanen eskubideen jabeak. Hala ere, antolatzaileek eskubidea dute aukeraturiko filmen zatiak zinemaldiaren promozioan erabiltzeko. Promozio-lan hori egiteko edozein era erabil daiteke (internet, argazkiak,...).
- 15** Euskaraz egindako ikus-entzunezkoen sektorea promozionatzea da zinemaldiaren helburua. Zinemaldiak, beraz, ez du inola ere dirua irabazteko asmorik. Hortaz, parte hartzaileek izena ematearekin batera uko egiten diote zinemaldian lan horiek emateagatik egile eskubideak eskuratzeari.
- 16** Baldintza hauek aldatzea antolatzaileen esku gelditzen da.

### SARIAK

- 17** Beheko taulan azaltzen dira EZBn sarituko diren arloak. Egileek profesional edo amateurren artean kokatu beharko dituzte euren lanak. Taulan agertzen dira, halaber, irabazleek jasoko dituzten sariak arlorik arlo:

ARLOAK	KATEGORIAK	SARIAK
Zuzendaritza	Profesionala Amateurra	1.600,00 € eta garaikurra 1.000,00 € eta garaikurra
Gidoia	Profesionala Amateurra	1.600,00 € eta garaikurra 1.000,00 € eta garaikurra
Film onena	Profesionala Amateurra	1.900,00 € eta garaikurra 1.300,00 € eta garaikurra

Sariak errententzio fiskalari lotuta daude.

- 18** Sarien irabazleak konprometitzen dira bere lana edo jakituria herrian zabaltzeko aukera ematera aurretiaz zehaztuko den egun eta ekintzetan (hitzaldia, tailerra e.a. autorearekin adostuko dena).
- 19** Epaimahaiak sariren bat eman gabe uzteko ahalmena du.
- 20** Sariak jaialdiaren amaierako ekitaldian jakinarazi eta banatuko dira. Irabazleak amaierako ekitaldira sariak jasotzera etorri beharko dira, edo bestela, norbait bidali euren orde. Etortzerik edo inor bidaltzerik ez badute, sariak jasotzeko eskubide guztiak galduko dituzte.
- 21** Epaimahaiaren erabakiak behin betikoak eta alda ezinak dira.